



Edurne Pasaban tolosarrak bederatzigarren zortzimilakoa lortu du

MENDIA ▶ Pakistango

Karakorumean dagoen Broad Peak
(8.047 m) igo zuen atzo goizean


ESPEDIZIOA ▶ Asier Izagirre

tolosarrak igo du berarekin, bere
lehen zortzimilakoa izan delarik ▶ 4

LEITZA ▶

Ahozko
kultur
ondarea
mantentzeko
proiektua

Asteazkenean
aurkeztuko dute
kultur ekimena ▶ 7



Gaua girotzeko, Homo Demens talde tolosarra ariko da gaur Plaza Berrian

TOLOSA ▶ Urtero bezala, Udalak Gaugiro antolatu du, udako gauak girotzeko. Homo Demens talde tolosarrak emango du lehen kontzertua, gaur, Plaza Berrian, 22:30ean. Hemendik gutxira kaleratuko duten diskoko kantuak aurkeztuko dituzte. HITZA ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Euskalgintzarako Fundazioa eratzeko ahalegina

Manuel Larramendiko Bazkunakoek
aldeko arrazoiak aurkeztu dituzte ▶ 3

XABIER MUJIKA ▶
LARRAULGO ALKATEA

«Adostasunean
hartzen ditugu
erabakiak»

Ez zuen «espero
hautatua izatea»
alkate berriak ▶ 2



JON ROTETA ▶
ALKIZAKO ALKATEA

«Zentro sozial
bat egin
nahi dugu»

Hori eta hobi septikoa
egokitzea dira
proiektu nagusiak ▶ 2



Mujika eta Roteta. i. e.



NEREAK

1962-2007
Lentzeria

Gizonezko eta emakumezkoentzat

LIKIDAZIOA
(Jubilazioagatik)
prezio ezin hobekak!

Pijamak • Kamisoiak • Kamisetak
Batoiak • Pikardiak • Tangak • Bodiak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

POLITIKA ▶

Udal hauteskunde ondoen Larraulen alkate berria dute, Xabier Mujika, eta Alkizan azken bi urtetan egon den Jon Rotetak jarraituko du; bakoitzaren herriaren egoera eta etorkizunari begirakoak izan dituzte mintzagai IMANOL GARCIA

XABIER MUJIKA ▶ LARRAULGO ALKATEA

«Udalean gaudenok adostasun batera iristerakoan hartzen ditugu erabakiak»

Ez zuen espero Xabier Mujikak alkate bezala hautatua izatea

Xabier Mujika (Andoain, 1974) da Larraulgo alkate berria. Orain lau urte joan zen bizitzera herrira.

Zer moduz bizitzen da Larraulen?

Ondo. Herri lasaia da. Andoainen ere ez nintzen zentroan bizi, kanpoaldean bizi nintzen. Gustatzen zait kale arteko giroa, baina gero bizitzeko lasatasuna gustatu zait beti.

Espero zenuen alkate bezala aukeratzea?

Ez, ezustekoa izan da. Pentsatzen nuen Karlos Iraza aterako zela, herri batzarrean berak atera zituelako boto gehienak. Ni nahiko saltseroa naiz eta gustatzen zait ekintzetan parte hartzea. Iaz elkarteko lehendakaria izan nintzen.

Dena dela, Udalean zaudeten bostek erabakitzen duzue.

Lanak boston artean banatzen ditugu. Nola nik ordu batzuk sartzen ditudan udaltxean, lan multzo handiena nik hartzen dut, baina gero edozein erabaki hartzeko bostak elkartzen gara. Ez da alderdi bat bezala. Bakoitzak bere ideologia dauka eta gai bat dugunean mahai gainean, hura aztertzen da, eztabaidatu eta adostasun batera iristerakoan erabakia hartzen dugu. Saiatu behar izaten dugu herriari begira egokiena dena erabakitzen.

Nola ikusten duzue gai batzuetan herriari zabaltzea erabakiak hartzeko aukera?

Agenda 21eko dinamika martxan jarri zen Larraulen. Azkeneko bilerak herri batzarrak bihurtu dira. Herriak Udalarri bere kezkek agertzen dizkio

edo Udalak zalantzazko erabaki bat badauka bertan planteatzen da herriaren iritzia jakiteko. Bestalde, askotan jendearekin topo egiten dugu kalean eta bere kezkek agertzen dizkigute.

Azken legealdia buruz zein balantze egiten duzu?

Udalaren lan gehiena izan da eraiki denaren proiektuak ikustea, jarraipena egitea... Herria hankaz gora egon da lau urte hauetan. Bestela, funtzionamenduz ondo ikusi dut.

Nola ikusten duzu Larraulak bere biztanle kopurua bikoiztu izana urte gutxitan?

Ez dut gaizki ikusten. Arauek egin diren etxe guztiak eraikitzeak aukera ematen zuten. Bat-batean etxe asko ikusten dira, baina alde batetik hobe zen hiru urtetan denak egitea,

hamar urtetan obretan izan gabe. Bestalde, etxe hauek guztiak ez dituzte bakarrik kanpokoek erosi. Gazteak ere bazeuden etxe bila. Orain aztertu beharra dago herria nola hazi den eta etxe gehiago egitea eskatzen duen. Nik oraingoz etxe gehiago eraikitzeo ideia ez dut. Arau berriztatzaileak aldatzeko garaia iristen denean orduan aztertuko da.

Lau urte hauetarako zer duzue mahai gainean?

Aurrena pixkat martxa hartzen ari gara. Aurretik bukatu gabe zeuden gaiak heldu diegu aurrena. Gero hasiko gara helburuei begira, baina printzipioz helburu konkreturik ez dugu. Hor daukagu Kultur Etxea, ea zer erabilpen ematen diogun. Liburutegia ere bertara pasa behar dugu.



I. GARCIA

Nola dago herri ostaturaren gaita?

Udalak aurrekoari ez zion kontratua berri eta arazoak izan ziren ez zuelako atera nahi bertatik. Gai horregatik urte betez egon da itxita ostaturia. Azkenean dena konpondu da eta ondoren pliegoak atera ziren berriro esleipena egiteko. Pertsona bakarra aurkeztu da eta orain berarekin hitz egin nahi dugu, kontratua egiteko eta festetarako taberna irekitzerik duen eskatzeko. ◀

JON ROTETA ▶ ALKIZAKO ALKATEA

«Hobi septikoa egokitzea eta zentro sozial bat egitea dira proiektu nagusiak»

Aurreko legealdia «nahiko positiboa» izan dela uste du Jon Roteta alkateak

Jon Rotetak (Alkiza, 1977) jarraitzen du alkate bezala Alkizan. Aurreko legealdiko azken bi urtetan alkate izan zen, Antonio Zubiaurre zena ordezkatzuz.

Zerrendaburu izan zara hauteskunde hauetan.

Jarraipen bat izan da. Aurreko zarprietatik bost taldekide jarraitzeko prest zeuden. Ikusten nuen herrian bazeudela lanak egiteko eta neroni herritarrak izanik eta bi urte egin ondoren, hasi naizelako ikasten, animatu nintzen aurkeztera.

Nolako esperientzia izan duzu orain arte?

Esperientzia ona izan da. Badi-tu bere momentu txarrak eta onak. Arazoak dituzunean, gaizki pasatzen duzu, eta hasiberrian gaizkiago, ez dakizu-

lako nondik nora joan behar duzun. Baina, bestalde, asko ikasten da eta gustura aritu naiz.

Zer balantze egiten duzu aurreko legealdia buruz?

Esango nuke lan dexente egin dugula. Edukiontzia jarri ditugu, herriko gazteentzako hamasei etxebizitza egin ditugu, haurtzaindegia ez dugu bukatu baina gehiena bideratu dugu. Alkiza-Asteasu errepi-dea ere bideratu dugu... Nahiko positiboa izan da nire ustez.

Zein dira proiektu nagusiak?

Proiektu nagusia hobi septikoa araztegia jartzea da. Nahiko garestia da, 35-40 milioi pezeta. Gero maisu-etxean zentro sozial bat jarri nahi dugu. Frontoian ere zer bait egitea nahi dugu.

Zer egoeratan dago hobi septikoa?

Ur zikinei irtenbidea emateko behar dugu araztegia. Gaur egun hauts batzuk botatzen zaizkio. Hobia egin zenean hamabost etxebizitza zeuden herri-gunean eta orain ia hirurogeitamar daude. Orain ez du behar bezalako edukiera eta ez dago egoera onean. Beraz egokitu behar dugu eta araztegia jarri. Ate joka hasiko gara diru laguntza bila.

Zentro sozial bat jartzearen helburua zein da?

Adineko jendearentzako egoitza bat jarri nahi dugu. Bertan babestutako bi etxebizitza egin nahi ditugu, herrian beharrik dituztenentzako. Egun badugu familia bat beharrik dituen eta bat beraiek hartu-

ko lukete. Bestea gertatzen diren beharretarako izango da. Beste gelak gizarte zerbitzuentzako, erabilera anitzeko eta guraso elkarreentzako izango dira. Beheko solairuan gimnasio estiloko bat egin nahi dugu eta baita ere prestatu nahi dugu medikuarentzako gela bat. Medikua herrira ekartzen saiatuko gara. Egun Anotara jaitsi behar dugu. Orain urtebete eskatu genuen eta ezezkoa esan ziguten. Berririo saiatuko gara.

Kubako Alkizar herriarekin hasitako analitze prozesua nola dago?

Nahiko geldituta dago. Guk eskaria bidali genuen, baina ez dugu erantzunik jaso. Aurten izan dira Alkizako bi bertan eta esan diete prest daudela,



I. GARCIA

baina Kubako Gobernutik ez diete uzten posta elektronikorik hartzen ezta bidaltzen ere. Castoren egoera dela eta.

Nola dago gaur egun Agenda 21aren gaita.

Ez dakit akatsik edo egin dugun, baina nahiko hotza ikusten dut Agenda 21arena. Hauteskundeon aurretik bi bilera egin genituen eta ez zen ia inor etorri. Bertan behera gelditu ziren eta ea orain berriro has-ten garen. ◀

EUSKARA ▶

Euskalgintzarako Fundazioa eratzeko, erantzunen zain

Manuel Larramendiko Kultur Bazkunako kideek Fundazioa eratzeko arrazoi zerrenda bat zabaldu zuten Zizurkilen



Arantxa Urkizu, Jon Unanue eta Mila Iztueta atzo Zizurkilen emandako prentsaurrekoan . A. I.

ASIER IMAZ

Manuel Larramendi Kultur Bazkunako kideek prentsaurreko eskaini zuten atzo Zizurkilen, azken urteetan Euskalgintzarako Fundazioa eratu nahian dabilzala jakinarazteko. Horretarako, Andoain, Villabona-Amasa, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Larraulgo udalei eta aurreko agintaldiko Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako proposamenaren berri eman zuten, hauekin izandako erlazioak azaltzeaz gain.

Euskalgintzarako Fundazioaren helburuak zeintzuk izango diren ere azaldu zuten, hauetan nagusia «euskararen erabilera sustatu, zabaldu eta

finkatzeko egitura juridiko iraunkor eta ahaltsua sortzea» dela adierazi zuen Jon Unanuek, Larramendi Bazkunako lehendakariak. Bertan «bat egingo» lukete, «euskalgintzako gizarte eragileek eta herri erakundeek», nahiz eta oraingoz Beterri-Aiztondoko udalei bakarrik zabaldu proposamena. «Herri erakundeekin lan esparru finkoa» antolatu nahi dela adierazi zuten prentsaurrekoan, «urteroko diru lagun-

tzetan mugatzen den behin-behinekotasun lankidetzak baino ahalmen eta ziurtasun handiagoarekin lan egin ahal izateko etorkizunean».

Oraingoz, Andoaingo Udalak bakarrik eman dio baiezkora Fundazioari. Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Adunako udalen erantzunen zain daude, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zain dauden bezala. Larraulgo udalak berriz, ezetza eman ziela jakinarazi zuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldari laguntzailea. Iturri-goxo jatebean sukaldari laguntzailea behar dugu. Deitu 943 69 12 10era.

ISKINA eta ETXEBERRIA edaritegia

Goizean Salda
Gauetan martxa! INTERNET

San Juan, 51 eta 59 ALEGIA • Tel.: 943653097

ARRAZOIAK ▶

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 10 arrazoiz osatu-tako zerrenda aurkeztu du:

- ▶ Euskalgintzaren historian, hizkuntzaren statusaz arduratuko den hain nortasun eta izaera anitzeko eragileez osaturiko erakunderik ez da izan.
- ▶ Gure gizartean euskararen alde diharduen eragile ugariaren arteko jardun eta ahalmen uztarketa izango da.
- ▶ Euskalgintza eragile pribatuek inoiz ez bezalako aukera izango dute azpiegiturak eta bitartekoak eskuratzeko.
- ▶ Euskalgintza suspertu eta babestu nahi duten herri erakunde eta erakunde pribatuentzat legezko esparrurik egokiena da babes hori bideratu eta zaindu ahal izateko.
- ▶ Inork hutsik bere gain hartu nahi ez duen irismen handiko hainbat ekimen gauzatu ahal izateko egitura da Fundazioa.
- ▶ Herri ogasunengandik artapen fiskalik egokiena izango duen egitura da. Gainera, Fundazioak herri administrazio nagusiko Babeslaritza izeneko organoak zorrotz jagoten ditu.
- ▶ Euskalgintzaren alorrean herritarrengandik hurbilen diren udalak beste herri administrazioekin uztartzen ditu egitura bakar batean.
- ▶ Herri erakunde euskararekiko eginkizuna bizkorraziko duten euskalgintzako eragileak jasotzen ditu bere baitan onuradun gisa.
- ▶ Bere diru ekarpenak eta bere onuradunen jarduna kudeatu eta zaintzeko aukera ematen die herri erakundeei.
- ▶ Kudeaketa eta erantzunkizunak banatuz mota orotariko arriskuak apaltzen ditu.

VILLABONA ▶

EHNA egiteko aukera gaur eta bihar

Villabonako Kultur Etxean EHNA egiteko aukera egongo da gaur eta bihar, goizeko 11:00etatik 13:00ak bitarte. Abuztuan ez da izango EHNA egiteko aukera gehiago, baina irailan ekimenarekin berrirri jarraituko dutela jakinarazi dute. Euskal nortasun agiria tramitatzeke, hiru argazki, 15 euro eta errolda agiria eman behar dira.

ERREMONTEA ▶

Altuna I.a Kider Txapelketatik kanpo geratu da

Altuna I.a Kider Txapelketako finalerik kanpora geratu da Ezukarra eta Olazar bikotearen aurka galdu ondoren (30-40), Etxeberria III.a lagun zuela. Koteto Ezkurak bere legea jarri zuen partidaren eta aukera gutxi eman zizkien aurkariei. Guztira Ezkurak 27 tanto egin zituen. Bestalde, Altuna II.a-Iriartek bigarren finaleridian Zeberio II-San Miguei izango dituzte arerio. Kider Txapelketan ondorioz, eskualdeko ordezkari bat izango da; Altuna II.a edo Zeberio II.a.

BERASTEGI ▶

Podologo zerbitzua hilaren 28an izango da

Berastegin hilaren 28, larunbatean, podologo zerbitzua egongo da Gaztainondo Jubilatuek elkartean. Izena eman nahi duenak, Elkartean izango du horretarako aukera. Telefonoz ere eman daitekeela izena jakinarazi dute Gaztainondo elkarteko kideek, horretarako 943 683264 telefono zenbakira deitu behar da.

BERRIaren edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile bat behar da.

Erreferentzia: 2007 EH-DP.

Ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin esperientzia izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izan behar du.
- Photoshop eta Flash programak ezagutu behar ditu.

Eskaintzen da:

- Hiru hilabeteko kontratua (luzagarria).
- Lanean berehala hastea (abuztuan).

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, uztailearen 20a baino lehen.

MENDIA ▶

Bederatzigarren zortzimilakoa igo du Edurne Pasabanek

Pakistango Karakorumean dagoen Broad Peak gailurra egin zuen atzo; berarekin zen Asier Izagirre tolosarra



Pakistango Karakorumean dagoen Broad Peak gailurra. HITZA

ERREDAKZIOA

Bederatzigarren zortzimilakoa gailurra batu du Edurne Pasaban tolosarra, atzo goizean, Euskal Herrian 09:45 zirenean, Broad Peak mendiko tontorra zapaldu ondoren. Hain zuzen ere, beste tolosar baten laguntza izan du igoera honetran, Asier Izagirrerena, eta berarekin batera, Ferran Latorre kataluniarrarena eta Ivan Vallego ekuatoriarrarena ere bai.

7.000 metrora kokaturiko hirugarren kanpamentutik ateraz ziren, eta denera, 12 ordu behar izan zituzten Pakistango Karakorumean dagoen 8.047 metroko gailurra egiteko.

Honekin, beraz, bederatzizortzimilakoa igoak ditu dagoeneko Pasabanek. Beste bost geratzen zaizkio hamalauak egiteko, hau da, Annapurna, Shisha Pangma, Kangchenjunga, Manaslu eta Dhaulagiri. Asier Izagirre tolosarraren kasuan, berriz, lehenengo zortzimilakoa izan da beretzat Broad Peak.

Guztiak egiteko erronka

Duela hiru hilabete, apirillean, ekin zion erronka berri bati Edurne Pasabanek, munduko 14 gailur garrantzitsuenak igozteko helburuz, eta erronka gaindituz gero, hori burutzen

duen lehen emakumezkoa ere izan daiteke. Orain arte gailur gehien igo dituen emakumea Gerlinde Kaltenbrunner austriarra da, guztira 10 igoa dituelarik. Tolosarrak ondorengo bi edo hiru urtetan erronka gainditzeko asmoa azaldu zuen.

Espainiako TVE kateko Al filo de lo imposible saioarekin ari da burutzen erronka hau. Eta, gainera, saio honetan ikusi ahaliko da dokumental ezberdinen eta saio berezien bidez tolosarrak nola egiten dien gailurrei aurre. Erronka berriari Nepalen dagoen eta 8.091 metro dituen Annapurnarekin eman zion hasiera duela bi hi-



Pasaban, K2an. HITZA

GAILURRAK ▶

2001. urtean hasita, 9 zortzimilakoa egin ditu Edurne Pasabanek.

IGOTAKOAK

- ▶ Broad Peak (2007).
- ▶ Nanga Parbat (2005).
- ▶ K2 (2004).
- ▶ Gasherbrum I (2003).
- ▶ Gasherbrum II (2003).
- ▶ Lhotse (2003).
- ▶ Cho Oyu (2002).
- ▶ Makalu (2002).
- ▶ Everest (2001).

IGOTZEKE DITUENAK

- ▶ Annapurna.
- ▶ Shisha Pangma.
- ▶ Kangchenjunga.
- ▶ Manaslu.
- ▶ Dhaulagiri.

labete. Baina, saiakeran baino ez zen geratu eta hainbat oztopo jasan ondoren, ezin izan zuen igo. Broad Peak igo ondoren, saioko zuzendariak esandakoaren arabera, «Pasabanekin hitz egin beharko dugu, hurrengo gailurra zehazteko».

Azken arrakastak

Hone aurretik azken zortzimilakoa Nanga Parbat izan zen, eta hau gainditu ostean, urte eta erdi egon zen gaixorik. Aurretik, 2004ean, K2 gailurra egin zuen. Halaber, espedizio honek ere ondorio larriak utzi zituzten; izan ere, oinetako hatzen bi falange galdu zituen hotzaren erruz.

GIZARTEA ▶

AHTren aurkako mobilizazioa gaur Triangulon

Oria-Goierriko ELA sindikatuak deitu du; herriko kaleetan zehar joango dira 11:00etan

ERREDAKZIOA

Oria-Goierri eskualdeko ELA sindikatuak garraio publikoaren eta tren sozialaren aldeko aldarrikapena plazaratu du gaur, Tolosako Triangulo plazan, 11:00etan.

AHTren kontrakoa ere izango da aldarrikapena, eta horretaz gain, mobilizazioa burutuko dute; Triangulotik abiatuko da martxa, eta Tolosako kaleetatik zehar joango dira. 12:00ak aldera, Renfek Rondilla kalean duen geltokian amaituko dute ekimena. Orduan, Mikel Noval ELAren exekutibako kidea eta arlo sozialeko arduraduna denak, hitz batzuk zuzenduko dizkie bildutakoek.

Azaldu dutenez, festa giroa izango da nagusi ibilbidean zehar, musika, parodia eta globo erreibindikatiboak izango direlarik. Ekitaldiari bukaera emateko, globoak askatuko dituzte eta «bertso berriak kantatuko dizkiogu norteko ferrokarrilari orain ehun urte Txirritak egin zuen moduan».

Ekitaldi honekin «gobernuaren praktikak salatu nahi ditugu», adierazi dute. «Arlo sozialean egiten dutena, eta zehazki, garraio arazoei aurre egiteko garaian erakusten duten zentzugabekeria: adibide modura, ehunka langile Apatia industrialde berriira kotxez joatea derrigortzen dituzten bitartean, eliteentzako soilik pentsatutako azpiegitura erraldoia eta suntsigarria, AHT alegia, babesten eta bultzatzen dute».

TXINTXARRI JATETXEA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ALEGIA • Tel.: 943 65 07 21

Galdaragintza
BURNI, S.L. *Ondo pasajaietan!*

Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532
ALEGIA

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

TXINDOKI AUTOBUSAK

FESTA ONAK PASA HERRIKOAK ETA KANPOKOAK!

ALEGIA
Tf.: 943 65 30 12

KUTXAREN GIZARTE EKINTZA - 2007 UZTAILA

gizarte ekintza



Gautena-ren Miramongo etxebizitza berriak, bi bizitoki berezitan banatuak, 14 lagunentzako tokiak du, eta Gizarte Ekintzaren dirulaguntzaz eraikia da oso-osorik.

Gautena Ulertzeko eta aurreikusteko moduko etxea autismoa duten pertsonentzat

Kutxaren Gizarte Ekintzak diruz lagundu du Gautenaren (Gipuzkoako Autismoaren Elkarte) Miramongo etxe bateko bi bizitza martxan jartzeko proiektua. Autismoa duten pertsonen ohiko bizimodua izatea du helburu. Kutxak sendotu egin du, hartara, sorreratik beretik babesten ari den elkarte honekiko bere lankidetasun hertsia.

Aparteko bi etxebizitza ditu eraikinak, eta zazpi lagunentzako lekua dago etxebizitza bakoitzean. Ohiko bizilekuetako gelak ditu (sukaldea, egongela eta logelak). Egunez, bost monitorek zaintzen dituzte eta, gaeuz, berriaz, bi profesionalak. Félix Arregi da instalazioen arduraduna, eta hau azaldu du: «Leku horretako eguneroko zeregina oso lotuta dago etxeko funtzionamenduan parte hartzearekin eta gizarteko gaitasunak garatzeko lanarekin; hain zuzen ere, hemen bizi diren gizon-emakume guztien beharra da».

Horrenbestez, oso antzera pasatzen dute eguna etxebizitza babestu hauean bizi diren pertsonak eta beste edonork. Lanegunetan, 9:00etatik 17:00etara, ohiko zereginak egiten dituzte hemen bizi direnek, beren eguneko zentroetan edo tailer okupazioaletan. Etxera itzultzean, ia familiakoa den bizitza islatzen saiatzen dira. «Horretarako, pertsona bakoitzaren gaitasunak, interesak eta indarguneak baloratzen saiatzen gara, etxeko bizitzan parte har dezaten. Asteburuetan eta jaiegunetan grina handiagoaz egiten dugu komunitatean parte hartzeko lana. Horretarako, norbanako bakoitzaren adin kronologikora hurbiltzen saiatzen gara, eta, beraz, haien adin errealekin bat datozen jarduerak egiten ditugu, eta ez adimen-gaitasunak islatzen duen adinarekin bat datozenak. Ez dugu nahi ostatu hutsa ematea, alderdi hori oso garrantzitsua izan arren; bizitza-proiektu bat garatu nahi dugu. Horretarako, norberak behar eta interes pertsonalak bete ditzan nahi dugu, ahal den erarik pertsonalitatearekin, eta behar eta interes



Gela, eremu pertsonala.

horiek identifikatzen saiatzen gara. Azken puntu horri dagokionez, bi aukera ditugu: pertsona batzuek adieraz diezagukete zer nahi dituzten, eta horiek asetzen saiatzen gara. Beste zenbaitek, ordea, ez du komunikatzeko gaitasunik, eta ezin digu bere interesik azaldu. Kasu horietan, senitartekoek eta tutoreen esku uzten dugu erabakia, baina pertsonak berak zer nahiko lukeen kontuan izanda, beti».

FAMILIEKIN LANKIDETZAN

Félix Arregik azaldu du etxebizitza horietan bizi diren pertsonak oso desberdinak direla izaera, behar eta familiekiko harremanei dagokionez. Horregatik, zentroak ez du jarraibide bakarra ezartzen senitartekoekin izan behar lituzketen harre-

manen inguruan. «Funtsean, familia bakoitzaren beharretara moldatzen gara. Hori bai, hemen bizi direnekin harremana izaten jarraitzea da guretzat garrantzitsua. Badakigu zerbitzu honek ez duela ordeztzen familiaren rola, eta, horregatik, hemen bizi direnentzat bizimodu jakin bat diseinatzeko guretzat garrantzitsua da».

Etxebizitza horietako batean bizi den gazte baten ama da M. Jesús, eta semearen esperientzia oso positiboa dela esan du, «bai guretzat (gurasoontzat, alegia), bai semeatzat horietan bizi diren pertsonak oso desberdinak direla izaera, behar eta familiekiko harremanei dagokionez. Horregatik, zentroak ez du jarraibide bakarra ezartzen senitartekoekin izan behar lituzketen harre-

Etxebizitzetan, familiako eguneroko bizitza islatzen saiatzen gara

manen inguruan. «Funtsean, familia bakoitzaren beharretara moldatzen gara. Hori bai, hemen bizi direnekin harremana izaten jarraitzea da guretzat garrantzitsua. Badakigu zerbitzu honek ez duela ordeztzen familiaren rola, eta, horregatik, hemen bizi direnentzat bizimodu jakin bat diseinatzeko guretzat garrantzitsua da».

manen inguruan. «Funtsean, familia bakoitzaren beharretara moldatzen gara. Hori bai, hemen bizi direnekin harremana izaten jarraitzea da guretzat garrantzitsua. Badakigu zerbitzu honek ez duela ordeztzen familiaren rola, eta, horregatik, hemen bizi direnentzat bizimodu jakin bat diseinatzeko guretzat garrantzitsua da».

manen inguruan. «Funtsean, familia bakoitzaren beharretara moldatzen gara. Hori bai, hemen bizi direnekin harremana izaten jarraitzea da guretzat garrantzitsua. Badakigu zerbitzu honek ez duela ordeztzen familiaren rola, eta, horregatik, hemen bizi direnentzat bizimodu jakin bat diseinatzeko guretzat garrantzitsua da».

TOLOSA ▶

Haur Liburutegia denbora gehiagoz irekita egongo da

Hemendik aurrera Errota Haur Liburutegia 10:00etatik 13:30era egongo da irekita. Hau da, orain arte baino hogeita hamar minutu gehiagoz egongo da zabalik.

TOLOSA ▶

Los olvidados taldea entzungai gaur, Bidebiden

Bidebidek asteburuetarako antolatutako kontzertuen artean, Los olvidados izango da gaur 22:00etan. Bihar berri, garai berean, Lolas Club-en saioa entzun ahal izango da.

AMEZKETA ▶

Joxean Tolosa Txapelketako partidak gaur

XIX. Joxean Tolosa Txapelketaren baitan, partida ugari jokatu dituzte asteburuan. Gaur 21:00etatik aurrera, kadeteen mailan, Mayo Arrietaren aurka lehiatuko da. Ondoren, Alustizak eta Zubizarretak jokatu dute. Azkenik, Zendoia eta Erdoziaren artekoa izango da.

ANOETA ▶

Ume festa antolatu du Gazte Asanbladak

Gaur ume festa izango da Gaztetxean, Gazte Asanbladak antolatuta. Herriko haur eta gaztetxo guztiak gonbidatuta daude festara. 16:00etan plazan elkartuko dira, kalejiran Gaztetxera jaitsi eta bertan merienda eta jolasak izango dira.

TOLOSA ▶ MUSIKA

Homo Demens izango da gaur gaueko giroa berotzen

Gaugirotako lehendabiziko kontzertua eskainiko dute tolosar gazteek; hemendik gutxira kaleratuko duten disko berriko kantuek aurkeztuko dituzte

ESTI EZEIZA

Gaur gauen entzun ahal izango da Gaugiroko lehen kontzertua. Honetarako, giroa berotzeko, Tolosako talde gazte bat izango da Plaza Berrian, Homo Demens, hain zuzen.

22:30ean hasita, lasai, gauaz gozatzeko aukera eskaintzen du talde berri honek. Hala ere, 80. hamarkadako erritmoak oinarri hartuta, dantzarako go-go pizten ere saiatuko dira abesti batzuekin. Kontzertu honetan, hemendik egun gutxira kaleratuko duten lehendabiziko maketako kantuek, nahiz beste berriago batzuk eskainiko dituzte.

Jende guztia beraien emandialdia ikustera gonbidatzen dute, eta Homo Demens entzuteko joateko argudio indartsuak eskaintzen dituzte: «Izugarrizko kontzertu bat entzuteko joan beharrean, askotan talde ezezagun eta berriak entzuteko joan garenean talde interesgarriak ezagutu ditugu. Beraz uste dugu, badaukagula zer eskainia eta berdina gerta litekeela gurekin».

Homo Demens Tolosako lau gaztek osatzen dute: Iñigo Asensio pianoan eta ahotsa jarritz, Iñaki Larrea bateriarekin, Beñat Led baxuan eta Egoitz Ezkerra kitarrarekin. Dena den, kontzertu honetan ez dira bakarrik izango, kolaboratzaile lanetan ariko dira Iñigo Karretra saxoarekin eta Unai Artola biolinarekin.

Duela hiru urte hasi ziren, bakoitza bere instrumentuarekin, batzuek gainera, «ia jotzen jakin gabe» elkarrekin biltzen eta jotzen. Hala, hasieran, bes-



Homo Demens taldea Tolosako lau gaztek osatzen dute. HITZA



Diskoaren karatula. HITZA

DISKOAREN DATUAK ▶

Izena. Homo Demens
Kaleratze data. Uztaialak 25.
Diseinua. Jon Mikel Caballero.
Argazkiak. Albaro Moreno.
Abesti kopurua. Sei
Grabaketa teknikaria. Jon Ander Larrañaga
Diskoko kolaborazioak. Felix Wagner (Biolina) eta Josune Aranburu (Ahotsa).

te taldeen bertsoak interpretatzen zituzten, baina denborarekin eurenak sortzen joan dira.

«Pop musikan dauden aurreiritziak alde batera utzi eta honen zabaltasuna» begiratu behar dela diote Homo Demensekoek. Beraiek, musika estilo honekin lotzen badira ere, honen baitan, gauza ezberdin

asko egiteko gai direla baitiote. Kantuetan «gizakiari, gizabanakoari eta indibiduoari etengabeko kritika» egiten diote. Hortik dator taldearen izena. Bestalde gizabanakoak Homo Demensera ailegatu arte egin duen bidea ere epaitzen dute. «Egiten dugun musikak erokeria puntu bat du eta estandarretik ateratzen saiatzen gara»

azaltzen dute Asensio eta Led taldekideek. Baina ez dute «kritika hipokrita» bat bezala jotzen, beraiek ere honen baitan sartzen baitira.

Letrei nahiz musikari ematen diote garrantzia, eta bata zein beste parekoa izaten saiatzen dira. Hitzak zaintzen saiatzen badira ere, kantuek eratzeko garaian ez dute estructures finko bat.

Maketa laster kalean

Duela bi hilabete inguru hasi ziren grabatzen Homo Demensekoak beraien lehen maketa. Taldearen izen bera emango duen disko hau tolosarren lehendabizikoa izango da. Jon Ander Larrañagarekin egin dituzten grabazio lanak. Asensio eta Leden esanetan, «etxean bezala aritu gara, aspalditik ezagutzen dugu Jon Ander, eta denborarekin, konfidantza eta lasaitasunez aritu gara lanean. Grabazio zaindua eta landua izan da, Homo Demensen soinu hori aurkitu arte», gaineratu zuten Tolosako musikariek.

Lehendabiziko disko honetan kolaborazioak ere izan dituzte. Alde batetik, Josune Aranburuk, Nekin taldeko abeslariak ahotsa jarri du abesti batean. Bestetik, «ustekabeko» kolaborazio bat ere izan zuten. Felix Wagner, biolin-jole alemaniarra Euskal Herriara egun batzuk igarotzera etorri zela aprobetxatuz, egun batetik bestera grabazioan parte hartzea lortu zuten.

Homo Demensekoak «gustura» agertu dira estreinako lan honekin. «uste baino hobeto» geratu dela deritzote.

**ALEGIAKO UDALA**

GUREAN EZ DA BETI JAI
BAINA BADIRA MILA MOTIBO
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA
GUREKIN EZ DAUDENAI

ONDO PASA FESTAK!!!

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • www.alegia.net

KULTURA ▶

Leitzako Ahozko Ondarea biltzeko proiektuaren aurkezpena, datorren astean

Asteazkenean egingen dute 20:00etan, udaletxean eta interesik izan lezaken herritar orori deialdia egin diete, elkarrizketatuak aukeratzen laguntzeko



Mertxe Labetzekoa eta Maribux Gazpillokoa eguneroko ahozko ondare txiki horri eutsiz, kontu-kontari. n.e.

NAIARA GARZIA

Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia deituriko proiektua Leitzan martxan jartzeko herri bilera egingen dute datorren asteazkenean, hilaren

18an, udaletxean, 20:00etan. Ahozko ondarea biltzea helburu duen proiektu honen lehenengo agerraldia izanen da, beraz, asteazkenekoa.

Leitzako Udalak finantzatu beharreko proiektua denez, le-

henengo urratsa Udalarekin hitz egitea izan da. Aritz Ibañez Euskokulturreko proiektuaren koordinatzaileak azaldu duenez, «Udalak proiektua onartu ondoren lanean hasteko moduan gaude. Orain zein pertso-

na elkarrizketatu daitezkeen ikusi behar dugu eta neurri batean horri begira egingen da datorren asteko bilera». 2005. urte amaieran lehenengo bilera bat egin zuen Ibañezek eta horretarako Leitzaldeko zenbait pertsonekin bildu zen, besteak beste, Patziku Perurena, Jaione Olazabal, Iñaki Perurena eta Unai Zabaletarekin. «Bilera hori izan zen pertsona zehatz batzuekin, gure ezagunak zirenekin. Orain, Udalak proiektua onartu ondoren, herri mailan martxan hasiko gara».

Horretarako Euskokultur Fundaziotik Patziku Perurena idazlearekin mintzatu ziren elkarrizketak egiteaz bera arduratu zedin eta asteazkeneko bilera ere hizpide izan zuten. «Guk tokian tokiko antolaketa egiten dugunez, Patziku Perurenarekin hitz egin genuen asteazkeneko bilera nola egin ikusteko». Beraz, Nafarroako ahozko ondarea bilduko duen egitasmoan interesa izan dezakeen edozein pertsonari asteazkenean 20:00etan udaletxean egingen den bileran parte hartzeko deialdia egin diote. Gainera, zenbait arlotan (herri musikan, herri kiroletan, hizkeran, kontu zaharretan...) lagungarri izan daitezkeen herritarrei ere deialdia egin diete, hala nola, Pontxito Irurtiari, Jose Luis Huarteri, Gabriel Saralegiri, Iñaki Perurenari, Mikel Olanori, Bittorio Lizarragari, Arroza Sestoraini, Joxe Migel Elosegi, Luzeri...

Aritz Ibañezen ustez, «proiektua tradizioa gazteei

helarazteko modu bat izan daiteke, duela urte batzuk arte jendeak zeramakien bizimodu hori eta gauzak ahoz aho kontatzeko ohitura hori galtzen ari baitira».

Asteazkeneko bilera

Asteazkeneko bilera horretatik elkarrizketatuko diren pertsonak aukeratuko dituzte eta bertara hurbiltzen diren laguntzarekin egingen dute hautaketa. «Guk galdeketa prestatu behar ditugu, eta horretarako Leitzako gaiak aztertuko ditugu, gai horiek aintzat hartuta ze pertsona elkarrizketatuak izan daitezkeen ikusteko», dio Ibañezek.

Asteazkeneko bileraren ondoren beste bilerarik egitea merezi duen ere orduan ikusiko dute. Pertsonak aukeratzeaz gain, galdeketa horietan herriko ohiturak ere bilduko dituzte. «Galdeketa jendeak gai zehatz batzuen inguruan Leitzan zer ohiturak zeuden idatzi ahaliko du, baita bururatzeko zaizkion bitxikeriak ere, gero elkarrizketatuak galdetu ahal izateko». Beste bilerarik ez dela behar ikusten badute, proiektua aurrera eramaten hasteko ordua izanen da, Patziku Perurenak elkarrizketak egiten hasteko, alegia.

Areso, aurrerago

Areson ere Nafarroako Ahozko Ondarearen Artxibategia egiteko asmoa du Euskokultur Fundazioak. Aritz Ibañez koordinatzaileak adierazi duenez, «Areson ere uda honetan egiteko asmoa daukagu, baina aurrerago. Asteazkeneko bilera Leitzari buruz izanen da».

Nafarroa iparraldean Euskokultur eskualde ezberdinetan ari da lanean. «Aezkoa aldean dagoeneko bukatu dugu, Leitzan orain hastekoak gara, Baztanen jada hasi gara, Bortzirietan, Malerrekan, Ultzaman, Lantzen, Urdazubina eta Zugarramurdi... horietan guztietan lanean ari gara». Beraz, bildu beharreko hurrengo ondarea Areson izanen da.

PROIEKTUAREN AURKEZPEN BILERA ▶ HERRITARREI DEIALDIA

Oraingoz, pertsona eta elkarte hauei deialdia egiten dieten arren, proiektua honen inguruan interesa izan lezaken edozein leitzarri joateko deialdia egin diote.

ELKARTEAK

Elkartekak. Aurrera, Jubilatutako Elkartea, Eskolako Elkartea, Eliz Elkartea, Guraso Elkartea,

Liñu Putzu Taldea, Marmari Taldea.

HERRITARRAK

Herri musika, historia eta horrelakoak. Pontxito Irurtia eta Jose Luis Huarte.

Leku-izenak, botanika, megalitoak. Joxe Migel Elosegi eta Migel Mari Elosegi *Luze*.

Kontu zaharrak. Batista

Astaitz eta Maria Jesus Artxikonekoa.

Herri-kirolak. Gabriel Saralegi eta Iñaki Perurena.

Leitzako hizkera eta esaerak. Mikel Olano, Bittorio Lizarraga eta Arroza Sestorain.

Herriko istorio eta pasadizo zaharrak. Maria Jesus Joandegikoa eta Asunzion *Bernabena*.

hilberria ▶

Gregorio Urbizu Arrieta

ATZO hil zen, Bartzelonan, 57 urte zituela.
-Goian bego-

Elkarrekin igaro ditugun
une hunkigarriengatik.
Ez agurrik
Ez adiorik
Gero arte baizik

Norberto, Mari Karmen, Jon eta Ana

ZEGAMAN, 2007ko uztailearen 13an



hilberria ▶

Gregorio Urbizu Arrieta

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAKO
langileek bat egiten dute
famiariaren saminarekin.

TOLOSAN, 2007ko uztailearen 13an

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAK jarrri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko uztailaren 13a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **29** hotzena **21**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailua.** Jon Mujika. **Publizitate.** 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Vilabona-Aitz.** 687 410022. vilabona-aitz@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta. 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarralde.** 687 410032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leizalde.** 687 410118. leizalde@tolosaldeko-hitza.info.

'HITZA' LAGUNTZEN UDALAK: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
(zabalzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jai alternatiboen baitan herri bazkaria antolatu dute, 14:30ean. Txartelak 15 eurora daude salgai lxxkiñan eta Etxeberrian. Karmengo ofizialen egitaraua: 17:30ean kartel erakusketa udaletxean, erraldi eta buruhandiak; 18:00etan presoen aldeko kontzentrazioa, txupinazioa eta sagardoa; 18:45ean abesbatzen kontzertua; 21:00etan zikiro jatea eta 23:00etan bertsoariak eta lotz taldea.

Berastegi. Gaztainondo jubilatutako elkarteak hilaren 19rako kostaldera irteera antolatu du: 9:00etan abiatu, Zarautzen geldialdiboxa, Deba gidarekin bisitatu, bazkaria Zubikarai jatebetean eta Mutriku. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Merienda eta karaokea izango da Gazte Topagunean, Kultur Etxean, 18:00etan, udako egitaraua bukatzeko.

Tolosa. Homo Demens musika talde tolosarraren kontzertua plaza Berrian 22:30ean, Gau Giroen barruan. Pop musika egiten dute.

Tolosa. Buzeatzen doan erakutsiko diete Usabal kiroledegian 11 urtetik gorakoak 18:30ean.

Vilabona. Hileko bigarren larunbatetan, EHNA egiteko aukera dago kultur etxean. Hiru argazki, 15 euro eta errolda agiria eman behar dira. Abuztuan ez da izango aukerarik EHNA egiteko. Irailan hasiko dira berriro.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro azuoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Asteko onena.
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bonbereneako II. Futbol Txapelketa abiarazi dute

TOLOSA ▶ Iaz izandako arrakasta ikusita, Bonberenean Futbol Txapelketa errepikatzea erabaki dute antolatzaileek; hala, bi asteburuz jokatu dituzte partidak, Bonbereneako zelaietan. Bihar ekingo diote txapelketari eta datorren larunbatean, hilaren 21ean, bukatuko dituzte. Hauek izango dira parte hartuko duten taldeak: gazteen mailan, Mondejuak, Odolkiak, Infernua, Aitanoelak, Astapistols A

eta Astapistols B. Helduen mailan, berriz, Bonberenea, Txoko Txiki A, Txoko Txiki B, Oargi, Maccabi de lebantar, Zato Boys eta Sanblas-piko taldeak ariko dira nor baino nor. Iazko «maila altua» aipatu dute arduradunek. Beraz, ondo pasatzeko parada eta partidak interesgarriak ikusteko aukera ziurtaturik dago Bonbereneako zelaira inguratzen direnentzat. NEREA URBIZU

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.



URTE ASKOAN
Maialen Otermin Pagola (Anoeta). Gaur 11 urte. Muxu asko familiaren partetik.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletzeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

KM kulturunea

Kalita Mitxelena Kulturunea
Urdineta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Soinu dimentsioa:
Artistak: Alien Productions, Mikael Arca, Andres Boushard, Ramon Gonzalez-Arroyo, Gary Hill, Tom Johnson, Donatella Landi, Bernhard Leitner, Alvin Lucier, Baskouin Ostroskynek, Paul Panhaysen, Manuel Rocha Barrio, Isidoro Valcárcel Medina

Uztailaren 13tik
Irailaren 13era
Erakustaretoan

Aurora Bengoechea (1943-1991)
Bizitza pintatua

Uztailaren 11tik
Irailaren 13era
Ganbara aretoan

Erakustetuen ordutegia
10:30-14:00 / 16:00-20:30
Izande, astelehen eta jaiegunetan hitza
Bilota gidatzaile lortzeko deitu: 647 346 025